

ANTXIÑAKO FOTOGRAFIXIA



Teatro-emunaldixak Oñatin 1950eko hamarkadan

Aurretik zertxobait hasitta baegoen be, II. Errepublikan (1931-1936) euki eben antzerkixak garairik aberatsena Oñatin. Orduko talde politiko inportantienak sarritan antolaketa zittuain euren lokaletan teatro-emunaldixak: **karlistak zirkuluan**, **EAJko abertzaliak batzokixan** eta **errepublikanua zentruan**. Karlistak erderaz eta euskeraz; abertzaliak euskeraz; eta errepublikanua erderaz. Gerriak, jakiña danez, beste esparru gehixenak letxe, teatruaren jardueria be zihero atxilipurdikatu eben. Batzokixa eta zentro errepublikanua erabat debekau eta itzi zittuain, eta zirkuluak, jarraitu arren, ez otsan, antzerkixari dagokixonian, gerra aurreko martxiari eutsi.

Gerrate ondorengo lehenengo urtietan, noizian behin, **komerixak** edo antzerakuak egitten ziran herriko eskoletan, neskatillen kolejixotan gehitxuago mutikuenetakuan baiño. Baiña 1950eko hamarraldixaren bigarren erdialdixan aittaketako moduko aldaketa gertatu zan arlo honetan. Izan be, **gazte animoso batzuek** teatro zaillagua eta serixuagua eskintteko saixuari ganoraz heldu otsain. Zera esan bihar da: kultura-ahalegin haren animia eta zuzendarixa **Joxe Mari Arzuaga** izan zala, gerora be eragille oso garrantzitsua Oñatiko musika-munduan. Haren ardurapeian antzeztu ziran hemen hiru teatro-lan desbardin: **Joaquín Calvo Soteloren La muralla** (1956), **Josep Maria de Sagarraren La herida luminosa** (1957) eta **Pedro Calderón de la Barcaren La cena del rey Baltasar** (1958). Lehenengo bixak modernuak sasue haretarako, eta hirugarrena XVII. gizaldiko auto sakramental klasikua.

Modernuok **abadetxeko areto zaharrian** errepresentau ziran, **Garoa** ziniaren aurrekuan; klasikua **unibersidadeko klaustro dotorian**, Korpus bezpera batian. Ni gaztetxua nintzan artian, baiña ondo goguan dakot zelako aurrerapausua izan zan guretzat herritarrak modututako mailla horretako teatro-emunaldixak ikusi ahal izatia. Gaurko fotografixan J. Calvo Soteloren **La muralla** izeneko lanian parte hartu euen artistak dakartzuegu. Ezkerretik eskumara:

Goiko illaran zutik: **Pedro Mari Galdos**; **Milagritos Igartua**; **Teofilo Etxegoien**; eta **Jesus Mari Romano**.

Behoko illaran jarritta: **Axun Arzuaga**; **Joxe Mari Arzuaga**; **Agustin Uribarri (Zarketa)**; eta **Antoni Beitia**.

Teatro-lan horren gaixa ausart samarra zan frankismo-denpora estu haretan. Gerra zibileko irabazle batek gudatean **era oker eta anker baten bidez eskuratutako ondasunak jatorrizko jabiaren ondorenguari bueltaittia pentsaitten dau**, heriotzako ordua hurrian somaitten dauenian, damuaren harraren eragiñez-edo. Baiña, orduan, **bere familixakuak izango dittu etsairik nagusixenak**, eztagozaleko prest euren bizimodu eroso eta lasaixari uko egitteko. Aitta eta seme-alaben artian **hormatzar-harresi** ikaragarrixa jasoten da, eta protagonista bere asmua burutu eziñik hilgo da, dramatismoz josittako eszena batian. Aittatu diran hiru obra honeik gaztelaniaz plazaratu ziran, harrera onarekin publikuaren aldetik. Gerra osteko euskerazko antzerkixaren lehenengo ahalegiñak 1960ko hamarraldixan ezagutu gittuan Oñatin. Hurrengoren batian aztertuko dittugu.

Argazkixa Juanita Uribetxerberriaren bittartez aillegau xaku. Informaziñua Juanitak ez ezik, Axun Arzuagak eta Teofilo Etxegoienek samurtu doskue. Milla esker danoiri!